

# *Europako integrazio prozesuak 60 urte, narratiben beharra*

JOXERRAMON BENGOETXEA

*UPV/EHU-ko irakaslea eta EuroBasque-ko Idazkari Nagusia*

- I. Udako Ikastaroaren ondorioa: krisi esistentziala
- II. Narratiba bat Europar integrazioaren xedearen inguruan: aldamio eta etxalde

## I. UDAKO IKASTAROAREN ONDORIOA: KRISI ESISTENTZIALA

Europar Komunitateak eratzen zituzten Erromako tratatuek 60 urte betetzen zutela ospatzeko eta, egun, Europar integrazio prozesuan aurkitzen garen egoeraren azterketa eta balorapen kritikoa egiteko asmotan antolatatu genuen ikastaroa. Balantze nahiko interesgarria egiteko parada eman ziguten bertan emandako hitzaldiek.

Diskurtso askotan bereizketa garrantzitsu bat egin zen: alde batetik, integrazioaren arlo teknikoa, alegia, nola lortu hain desberdinak diren estatu, herri, ekonomia, kultura, zuzenbide, interesak, politikak elkartasun eremuetan elkarlanean aritu ahal izatea; eta, bestaldetik, integrazioaren narratiba, zioa, ispiritua, alegia zergatik eta zertarako batzen garen. Eusko Legebiltzarreko presidente andereak bere irekiera hitzaldian adierazi zuen moduan: “Europa no debe perder su alma”. Ezagutza, *know how* edo teknika, baina baita ere adimena, zentzua, sorkuntza, *know-why*. Europar Batasunak “*crisis existencial*” izaera krisia bizi duela esaten dugunean, hainbat hizlarik errepikatu zuten moduan, behar bada bigarren alderdiari begiratzen diogu. Ez da ezin duela funtzionatu, orain dauzkan egiturekin eta prozedurekin, nahiz eta hauek guztiz hobegarriak izan, da bere kideek, edo kide batzuek, ez daukatela batere argi zertarako gauden elkarrekin. Estatukide batek lehenbizikoz gure historian erabaki du irten nahi duela, eta beste Estatukide batzuek elkartasun arauak kolokan jartzen ari dira, horregatik bizi dugu izaera krisia. Ez horregatik bakarrik, baina horregatik ere bai.

Krisi ekonomikoak erakutsi digu hestutze eta doikuntza neurriak modu ezberdinean hartu direla eta eragin dutela Europako herrien artean, “iparraldeko” Estatukide aberats hartzekodunek “hegoaldeko” Estatukide zordun kaltetuenei gero eta isfortzu eta gabezi gehiago esijitzen dizkietela, eurekiko duten zorrari aurre egin ahal izateko. Baina ez hori

bakarrik, krisiak hain gogor jo izanaren errua ere hein batean herrialde hauen kultura xahutzaile eta axolakabe bati leporatu izan diote diskurtso moralista bat jarraituz, eta zentzu horretan ez bakarrik xedea, elkarrekin esparru amankomuna eraikitzea, guztion onura lantzea, *common welfare* bat eraikitzea, baina baita EB-ren funtsa ere, alegia, elkartasuna, kolokan jarri izan da. Honek ere izaera krisia areagotu du.

Krisi existentziala honen beste arrazoia, errefuxiatuen arazoarekin ikusi dugu. Europar Batasunak hainbat baloreri eusten diola, Tratatuaren testuan, baina baloreek praktikan jartzeko orduan, gabezi oso handiak dituela. Estatukide batzuek kontseiluan adostutako kuotei uko egiten diete. Visograd deritzon estatukide laukoteak, berezko duten aniztasun etniko eta nazioalarekin arazoak izan dituzte historikoki eta horri gehitzen badiogu herbestetik, beste kontinente batetik, etorritako errefuxiatuak hartzeko beharra, duten oreka soziala ahulari eusteko zailtasunak ikusten dituzte. Alemanian errefuxiatuekiko oso harreman anbigua ere ikusten da, kopuru txikiena jaso duen lurraldea xenofoboena bilakatu da, eta azken hauteskundeetan AfD alderdiak DDR ohiaren *Länder* batzuetan ordezkari oso zabala lortu du. Frantziako *Front National* hortxe hortxe, garaipenera arrimatu da berriro ere, Frantzia eta EB kolokan, amildegian jartzeko zorian. Herbeheretako parlamenturako edo Austriako presidentziarako hauteskundeetan aurrean ere arnasari helduta ibili ginen, baina Austriako parlamenturako hauteskundeetan ostean populistak gobernu koalizioa osatu dute. Sintoma horiek guztiek iraganeko mamuak astintzen dizkigute. Herrialde europar askotan errefuxiatuen kontrako jarrerak agertu dira, eta agertu ez diren lekuetan ere elkartasunak huts egin du.

Gai hauek denak Udako Ikastaroan jorratu genituen hainbat alderdi edo ikuspegietatik, zuzenbidetik, teoria politikotik, soziologiatik, historiatik, nazioarteko harremanen teoriatik, ekonomiatik. Benetako disziplina-arteotasuna zaindu egin genuen Ikastaroa diseinatzeko orduan eta oso onuragarria suertatu zaigu. Adibidez, Aschmann irakasleak Europak behar dituen emozioen inguruan hitzegin zigunean, denok errelato edo narratiba berri baten beharraz pentsatu genuen, amodioaren eta gorrotaren artean, baina berak gorrotoaren diskurtsoa Brexitzale askoren diskurtso eta jarreretan kokatu zuen, eta amodioarena EB-zaleen ikurretan. Historiatik jorratu zituen bi sentimendu hauek: infernurako bidaia, eta handik itzulia, bigarren munduko gudan. Aurrera egin ahal izateko ahanzduaren erabaki eskuzabala hartu zuten Europak eta Marshall Plana diseinatu zutenek eta CECA sortu zutenek, berradiskidetze mota berezi bat asmatu zuten. Trantsiziozko justizia mota berezi bat ekarri du Europar integrazio prozesuak, bakearen xerka. Eta sorkuntza horiek benetan arrakastatsuak izan ziren: bazirudien hazkundeak ez zuela mugarik izango. Hasierako narratiba hori itxaropentsua izan zen: belaunaldi berrikoak gerra egin zutenen belaunaldiak eta bakea egiten ari zirenen belaunaldiak baino hobeto biziko ziran, etengabeko garapenean: aurrerakuntzaren mitoa. Europar merkatu batuak, moneta batuak, joan-etorri askeak

onurak besterik ez zituen ekarriko, eta Westphaliar Estatu subirauak trantsitorioak izango ziren, behin-behinekoak, Europa Federala sortuko genuelako.

Baina Europaren hazkunde hori hirugarren munduaren kaltetan izan zen neurri batean, eta baita ere gure ingurumenaren kaltetan, eta horrexegatik 1970 eta 80 hamarkadetan, petroleo eta energiaren krisiarekin batera, estadista eta eragile batzuk hasi ziren hazkundearen mugetaz hitzegiten, Erromako Klubak berea egin zuen diskurtsoa 1990 hamarkadan. Eta lehenbizikoz integrazioarako negoziaketak burututako Estatu batek ezetz esan zion sartzeari, Noruega hain zuzen, petroleoduna, eta bere burua Bruntland anderea garapen jasangarriaren ikurra bilakatu zen. Birpentsatzeko beharra zegoen orduan, gure integrazio sistema eta eskema ez zen ba hain perfektua izango Noruega bezalako ongizatearen herri garatu eta aberats batek ezetz esateko, bere interesak Europar merkatu amankomunetik at hobeto defendituko zituela pentsatzeko. Beste modu batean aritu beharko zen. Brexitek sentsazio horiek berriz astindu ditu, ez bakarrik Europar Batasunari esan diren gezurrak, baina baita ere zergatik sinestu diren, eta zergatik egin den hain kanpaina traketsa baietzaren alde: labour bezalako alderdi batek ez badu EB benetan defenditzen, zerk egin du porrot? Emozioa falta izan da, eta Europak ez du jakin, emozio horiek berpizten, europazaletasunak ez duelako narratiba berri hori landu. Estatukideen gobernuen eskuetan dagoela dirudi, bakoitzak bere interesak defenditzen dituela, eta Westphaliar estatu subiraua betirako geratuko dela dirudi orain eta orain arte sistemak funtzionatu izan du. Sistema zilegia izan da, onurak ekarri dituelako, baina *output* bitarteko zilegiztatze horrek (Scharpf), lehen balio baldin bazuen, emaitzak eta lorpenak zirelako zen, baina Martin y Perez de Nancloresen esan zuen moduan “los éxitos del pasado no garantizan los éxitos del futuro”. Eta etorkizunean onurak ez badira hain nabariak, edo biztanlego zati handi batek ez baditu inondik ere ikusten, nekez lortuko da hauen atxekimendua ikuspegi funtzional batetik. Eta narratibarik ez badago, Estatu zaharren narratiben doinuen erritmoan dantzatzen hasiko dira berriz.

Lorpen horiek Europaren arrakasta gisa ikusten ez badira, elkarbanatzen ez badira, berriztatzen ez badira, diskurtso positibo bat atxekitzen ez bazaie, orduan jatorrizko bisioa eta ametsa galdu egingo dugu eta, neurri handi batean, hori da gertatu zaiguna. Kontakizun bat behar dugu, zeinaren arabera hau dena, amankomuneko onura erdiesteagatik egiten dugun – bakea, elkartasuna, askatasunak, dibertsitatea, eta ez azoka bakarrik. Landaburu euro-teknokrata ohiak, hitz hau zentzurik onenean esanda, alegia agintean dagoen teknikari aditua, edo Verhofstadt bezalako politikariak, hau ere zentzu onean esanda, etorri behar izan zuten, narratiba positibo hori ikustaraztera, benetako kosmopolitismo baten bila jartzeko (Turegano), eta interdependentzien autodeterminazio transnazionalaren ideia ikustarazteko (Innerarity). Horrela lortuko dugu adiskidetasuna, horrela ulertuko dugu gure ama-lurra benetan txikia dela, eta zaindu behar dugula, eta Europak eginkizun berezia duela enpeinu horretan, eta saiatze

horretan narratiba kosmopolita eraikitzeko aukera izango dugula (Görlach). Antzeko ikuspegia eman zigun Douglas-Scotttek Brexitaren gaiari heltzeko orduan, baina zuzenbidearen arlotik (*pragmatic differentiated solutions* trantsizio luze batean).

Behar bada ez genituen konponbiderako soluzioak topatuko ikastaroan, baina galdera berriak egiteko aukera eman zigun topaketak, Europaren aldeko emozioek ez dutela zertan irrazionalak izan, ez duela dena interesen joko ziniko bat izan behar, badugula zeri eutsi eta zergatik eutsi, eta Westphaliazale eurofoboek Estatuaren figura zaharkitu horretara itzultzeko proposatzen digutenean propagandaren hutsaren aurrean gaudela jakingo dugu, lehen ez bageneki. Horregatik ere bai propoganda horri aurre egiteko, narratiba baten beharra sortzen zaigu. Hona hemen saikera xune bat narratiba baten zirriborratzeko.

## II. NARRATIBA BAT EUROPAR INTEGRAZIOAREN XEDEAREN INGURUAN: ALDAMIO ETA ETXALDE

Europar herriak eta nazioak badira aro modernotik gutxienez. Erdi arotik sortzen joan diren *nationes* horiek estatu forma hartzen joan ziren eta XIX. mendearen amaierarako nazio gehienek estatu forma hartua zeukaten, nazio-estatuak (*Etat-nation*) eratuz. Prozesu historiko hau konplexua izan zen hainbat esparruetan, hala nola Britainiar inperioan ez zen benetako estatu-nazioa osatu, ezta ohiko estaturik ere, Austriar-Hungariar inperioa ere forma bereziko espazio politiko nazio-anizduna zen. Otoman inperioa ere Europa hego-ekialdean forma berezia zeukan (Millet aniztasun juridikoa) eta, Sobiet Iraultza arte, Errusiak ere ez zuen nazio-estaturik osatzen. Nazioak egon, bazeuden baina estatu-nazioaren forma politikoa nazio batzuek bakarrik hartu zuten. Hauen artean, Frantziak, Portugalek eta Espainiak historian nahiko goiz hartu zuten, Poloniak, Danimarkak, Suediak edo Lituaniak ere bai, Her-Beherak apur bat beranduago, Belgiak, Alemaniak, Italiak beranduago, XIX. mendean. Irlanda, Grezia, Estonia, nahiko berriak dira, XX. mendetakoak. Gainera ekialdeko Europako nazioak Sobiet Batasunaren eraginpeko orbitan jauzi ziren eta mende-laurden eskas bat besterik ez da pasa askatu zirenetik, askapen nahiko laburra, pentsatzen baldin bada orain Europar Batasunaren estalpera pasa direla. Honek esan nahi du “nazio” edo herri europarrek, kasu gehienetan, oso bizitza politiko “nahasia” bizi izan dutela. Horrek esan nahi du halaber, Europar Batasunean nazio mota desberdin asko daudela, eta nazio-estatu mota desberdinak ere bai: batzuk oso konplexuak dira, beste batzuk oso “simetrikoko edo razionalak”. Europar integrazio prozesuan behar bada nazioak eta estatu-nazioak kontutan hartzen dira, baina ikuspegi formal batetik estatuetatik hitzegiten da. Europar Batasunaren ikuspegitik neutralena Estatuaz hitzegitea da, estatu-kidetzaz

hain zuzen. Ikuspegi horretatik berdintasun formala dago. Kide guztiak *estatu* direnez, berdintasun maila bermatzen da. Hasiko bagina nazio osaketaz mintzatzen, zehaztasun eta ñabarduretan luzatuko ginateke: desberdintasunak nabari dira.

Europar Batasunak ez ditu ñabardura historikoak aintzakotzen. Baina zehaztasun hauek garrantzia handia daukate integrazio prozesua ulertzeko orduan. Itzul gaitetzen bada nazio europarrek hartu duten forma desberdin eta anitzetara. Estatuekin alderatuz, nazioak ez dira formal hutsak: Nazioaren atzean dagoena herria da, *demos* bat, eta jakina, gizataldeak, komunitateak, erkidegoak, eta hauek osatzen duten pertsonak, hiritarrak. Biztanlegoa, hiritargoa edo herria osagai nagusia da. Herria lurralde batean kokatuta dago, lurraldeak suposatzen duen espazioa eta ekologia, ingurumen. Eta espazio horretan antolakuntza, jurisdikzioa, administrazioa, erakundetzea. Horiek dira estatuen osagaiak: herria, lurraldea, administrazio aparatoa. Europako herriek ibilbide historikoan forma desberdinak hartzen joan dira, Nazioak, eskualdeak, estatu-nazioak, inperio nazioanizdun bateko kide, inperio naziobakarreko kide, ... oso forma anitzak. Gainera Europako estatu nagusiek iragan koloniala daukate – Irlanda, Txipre, edo Malta Erresuma Batuaren Commonwealtheko kide izan dira eta oraindik ere Erresuma Batuak Gibraltar du, Frantziak oraindik ditu DOM-TOMak eta lehen Argelia Frantziako probintzia bat zena, Danimarkak Groenlandia eta Feroeak zeuzkan (edo dauzka, baina ez Europar Batasunean), Finlandia izan zen Suediaren burujabepekoa eta oraindik ere ofizialki elebiduna da, Belgia, HerBeherak Espainiako “kolonia” ohiak izan ziren, XVI-XVII mendeetan. Alemaniaren *lebensraum* zelakoak oraingo kide asko besarkatu zuen: Austria, Txekiako Sudeteak, eta hinterlanda are gehiago, Polonia, Frantzia, Herbeherak, Belgia, Luxemburgo, Errumania, Kroazia, Eslovenia... Horrez gain, munduan zehar Portugal, Espainia, Frantzia, Erresuma Batua, Italia, Belgia, HerBeherak, Alemania, metropoli gisa, Afrikan, Asian, Amerikan, Ozeanian koloniak eratzen joan ziren, mundua euren artean banatuz, eta lehengaiak eskuratuz. Eta metropoliaren abenturan parte hartutako herriek badute iragan kolonial bat, Europako integrazio prozesutik azalarazten ez dena. Historia iragana da, integrazio prozesua eta Tratatuak etorkizunari begira kokatu dira.

Forma politiko horiek guztiak zuritu eta gero geratzen dena herriak dira, bakoitzak nahi duen gisan definituko ditu, baina herriak dira forma berri baten abenturan sartuko direnak, “gero eta integrazio estuagoa Europako herrien artean”. Ez da kasualitatea Tratatuak, estatuen atzetik begiratuz, herrietaz hitzegitea. Herriek eraikitzen dute Europa, etxalde bat osatzen dute, eta Europa-etxea eraikitze hori, Estatuaren bitartez lortuko da, hasieran bederen. Baina funtsa eta arima, integrazio abenturan abiatu direnak herriak dira. Azken jomuga, akaso, ez da estatuen Europa hori; estatuak erraminta eta bide dira. Estatuak herrien tresna dira, baina herriak iraungo du eta behar bada estatuak trantsizioko formak dira. Zentzu horretan aldamiorearen irudia baliogarria egiten zait: herriek Europa etxalde komuna eraikitzen dute, eta eraikina egiteko aldamia behar dute, integrazio juridiko-formala, administrazioek eta estatuek duten subirautea erabili

beharko da, baina eraikina benetan sortzen denean, aldamiaoa kendu ahal izango da, herrien Europa edukiko dugu, hiritarrena eta herriena, gizarteena. Erreformatan edo eraikuntza etengabe dagoenez, Estatuak diren aldamiaok hortxe dirau, baina helmuga, jomuga, bestelakoa da.

*Telos* edo helburu horren kontrakoa UKiPen buru ohia den Farage-n eredu da, EB desegin eta Estatu-nazioen kontinentera itzuli. Hau esan zuen Estoril-go bilera batean maiatzaren amaieran (*El Pais* 2017-05-30) eta Francisco Assis, Portugalgo eurodiputatuak erantzun zion Europar Batasunarena dela integrazio prozesu bakarra gizateriaren historian menpekotasun edo enpeinu imperial batetik atera ez dena, eta berari esker Estatukideen artean ez da gerrarik izan 60 urtetan, eta oso demokratikoa dela: egon nahi ez duenak joatea dauka. Hori bai proiektu libre: borondatea besterik ez da behar, inor ez dago kideztara behartuta.

Gonbarazio batera, Amerikako Estatu Batuak herrialde zatituak eta zabalak izan dira beti, baina beren historian zehar halako narratiba edo kontakizun nazional amankomun batek batasuna bermatu du: *exodo* kondaira bat, Europa zaharreko estatuetako erlijio zapalkuntzatik ihes egin zuten sortzaileek, lurralde basati batera joanda, fedea eta ziurtasunak gidaturik eta halako lurra amestua edo zinezko lurra sortuz (*promised land*, Israel bezala). Kondaira hau judeo-kristaua zen, Jainkoak lur amestua erobitua. Orain Estatu Batuetan identitate krisia dago, mito horrek ez baitu gehiago balio. Talde desberdin bakoitzak bere kondaira nazional desberdina du, eta sentsazioa dute nazio desberdinetan bizi direla. George Packer idazlearen ustez lau narratiba dago gutxienez (New America *think tank*-en mintzaldia, *NYT* 2017-05-26, David Brooks, “The Four American Narratives”): alegia lehenbiziko eta eraginkorra, libertarioa (*free individuals responsible for their own fate, Americans as consumers, entrepreneurs, workers, taxpayers, anything except citizens of a republic*); bigarrena, amerika globalaren narratiba (New York, edo Silicon Valley islatzen dutena); hirugarrena, amerika kulturantzaren narratiba, baina honek amankomuneko erreferenteak falta ditu, eta laugarrena, *America First* narratiba, oraingo presidentearen diskurtso inperiala. Beste teoria baten arabera (Michael Lind, *The New Class War*) bi eredu daude leian: merkantilista (Amerika Erroma berri bat bezala) eta erkidego doatsua (*talented community*, Amerika Atenas berri bat bezala). Lehen egon ziren horrelako ereduak: *Mars v Venus*, edo *open v closed society*.

Gakoa da nolako narratiba eta nolako kategoriak erabiliko ditugun Europar integrazio prozesua eta Europa garen egitasmo kolektiboa, gure etxea, defendituko dugun etxea, adierazteko. Narratiba hori taldean sortu behar dugu, eta hori ekartzeko gutako bakoitzaren ekarpena behar dugu. Denok hasten bagara hitzegiten eta solasten nolako Europa eraiki nahi dugun, piskanaka eta poliki, ia konturatu gabe jomuga den Europa bera gure emaitza izango da.

*Traducción al castellano del original en Euskera*

*El proceso de integración europea,  
necesidad de narrativas*

JOXERRAMON BENGOETXEA

*Profesor EHU/UPV y Secretario General de EuroBasque*

- I. Conclusiones del curso de verano: crisis existencial
- II. Una narrativa sobre el objetivo de la integración europea: andamio y caserío

## I. CONCLUSIONES DEL CURSO DE VERANO: CRISIS EXISTENCIAL

Cuando acometimos la organización del curso de verano, nos propusimos conmemorar el 60 aniversario de los Tratados de Roma que fundaron las Comunidades Europeas, y realizar un examen de situación y valoración crítica del estado de integración en que nos encontramos actualmente. Las ponencias que se expusieron en el curso nos ofrecen la oportunidad de llevar a cabo un balance interesante.

En muchos discursos se realizó una distinción de hondo calado: por un lado, nos encontramos con la parte más técnica de la integración, esto es, cómo lograr que estados, economías, culturas, ordenamientos jurídicos, intereses y políticas tan diversas entre sí puedan colaborar en ámbitos de solidaridad; y por otro lado, tenemos la narrativa de la integración, el razonamiento fundacional, el espíritu que nos federaliza, es decir, por qué y para qué queremos unirnos los pueblos de Europa. Como expresó la presidenta del Parlamento Vasco, Bakartxo Tejería, en su discurso de apertura: “Europa no debe perder su alma”. Por una parte tenemos el conocimiento, el *Know-how*, la técnica, pero por otra tenemos también el juicio, el sentido, la creación, *know-why*. Cuando decimos que la Unión Europea vive una “crisis existencial”, y como reiteraron numerosos ponentes, quizás nos estemos fijando sobre todo en este segundo aspecto.

No es que la UE no pueda funcionar con las estructuras que tiene hoy, aunque éstas sean mejorables, lo que sucede es que sus miembros, la comunidad de Estados de la UE, no tienen nada claro para qué estamos juntos. Por primera vez en nuestra historia, un

Estado miembro ha decidido que quiere irse, y otros Estados miembros están poniendo en jaque las normas de solidaridad. Por eso vivimos una crisis de identidad. No sólo por eso, pero también por eso.

La crisis económica nos ha enseñado que los recortes y las medidas de austeridad se han adoptado de manera desigual y han incidido de modo distinto entre los pueblos europeos: los Estados miembros acreedores, los Estados del “norte” han exigido a los Estados miembros deudores, del “sur”, cada vez más esfuerzos y más recortes para que éstos puedan hacer frente a las deudas contraídas con los primeros. Pero no sólo eso; se ha seguido un discurso moralista que culpa de la dureza de la crisis a la cultura irresponsable y dilapidadora de estos países sureños. En este sentido, no sólo se ha puesto en duda la misión fundacional, la construcción de un espacio común, desarrollar el bienestar de todos, construir un “*common-welfare*”, sino que se ha cuestionado el fundamento mismo de la UE, esto es, se ha desprestigiado la solidaridad. Esto ha contribuido también a agudizar la sensación de crisis existencial.

La otra razón de esta crisis existencial, la hemos visto con el drama de las personas que buscan refugio en Europa. La Unión Europea proclama numerosos valores en el texto de los Tratados, sin embargo, tiene grandes carencias a la hora de ponerlos en práctica. Algunos Estados miembros han incumplido las cuotas acordadas en el Consejo. El cuarteto de Estados miembros conocido como Visegrad, caracterizados por su diversidad étnica y nacional interna, han tenido problemas históricamente con el pluralismo y si a esto le añadimos la responsabilidad de acoger a refugiados venidos del exilio, de otros continentes, sus sociedades muestran dificultades para mantener su débil equilibrio social. Eso argumentan para rechazar las cuotas y motivar su falta de solidaridad. En Alemania también vemos una relación muy ambigua con los refugiados, los Länder del este, que han recibido el menor número de refugiados, se han convertido en los más xenófobos, y en las últimas elecciones el partido AfD ha logrado una representación muy amplia en los Länder de la antigua DDR. El Front National francés se ha vuelto a arrimar a la victoria, a punto de dejar a Francia y a la UE al borde de un abismo de intolerancia, en un *schock*. También contuvimos la respiración en las elecciones de los Países Bajos o de Austria. En el caso austriaco se ha formado un gobierno de coalición que recuerda la experiencia xenófoba de hace dos décadas. Estos síntomas despiertan fantasmas del pasado. En muchos países europeos han emergido actitudes en contra de los refugiados, y donde no las ha habido, ha fallado la solidaridad.

Examinamos todas estas cuestiones desde diversas perspectivas, desde el Derecho, la teoría política, la sociología, la historia, desde la teoría de las relaciones internacionales, la economía. Cuidamos la interdisciplinariedad a la hora de diseñar el curso y resultó ser muy beneficioso.

Por ejemplo, cuando la profesora Aschmann habló de las emociones que necesita Europa, todos pensamos sobre la necesidad de una nueva narrativa o relato, “entre



el amor y el odio”. Ella situó el discurso del odio en muchas posiciones del Brexit, y el del amor entre los partidarios de la UE. Analizó estos dos sentimientos desde la historia: el viaje al infierno totalitario y la vuelta del infierno que culmina en la Segunda Guerra Mundial. Europa, los ideólogos del Plan Marshall y los creadores de la CECA, adoptaron una *desmemoria* generosa para poder avanzar, inventaron un tipo especial de reconciliación a través del olvido. El proceso de integración europea ha traído un tipo especial de justicia transicional, en busca de la paz. Y esas creaciones fueron verdaderamente exitosas: parecía que el crecimiento no tendría límites. Esa narrativa inicial fue esperanzadora: las nuevas generaciones iban a vivir mejor que aquellos que hicieron la guerra y estaban construyendo la paz, en un crecimiento permanente. Mercados europeos unidos, monedas unidas, libertad de movimiento... sólo traería mejoras, y los Estados Westfalianos soberanos serían transitorios, temporales, porque íbamos a crear una Europa federal.

No obstante, el crecimiento europeo se hizo en parte a costa del tercer mundo, y en perjuicio de nuestro medioambiente; por ello, en las décadas de 1970 y 1980, junto con la crisis del petróleo y la energía, algunos estadistas y actores comenzaron a hablar sobre los límites del crecimiento, el Club de Roma en la década de 1990 hizo suyo ese discurso. Y por primera vez, un país que había negociado su integración dijo que no a la entrada en las Comunidades Europeas, en concreto, Noruega, con petróleo, y su dirigente, la señora Brundtland se convirtió en el icono del desarrollo sostenible. Entonces era necesario replantearse las cosas: nuestro sistema europeo no sería tan perfecto si un Estado del bienestar, desarrollado y rico como Noruega, había dicho que no, considerando que podía defender mejor sus intereses fuera del mercado común. Habría que proceder de otro modo. El Brexit ha vuelto a sacudir esas sensaciones. Nos obliga a analizar no sólo las mentiras que los partidarios de la salida han vertido sobre la Unión Europea, sino también porqué estas mentiras han sido creídas, y por qué se ha hecho una campaña tan “chapucera” a favor del sí. Si un partido como el laborista no defiende de verdad la UE, ¿qué es lo que ha fracasado? Ha faltado emoción, y Europa no ha sabido resucitar esas emociones, porque el europeísmo no ha elaborado esa nueva narrativa, se ha quedado en la vertiente técnica de la integración. La integración europea está en manos de los gobiernos de los Estados miembros, cada uno defiende sus intereses. Se consolidan así las estructuras del “estado”, y parece que ese Estado westfaliano soberano se va a perpetuar. Es posible que el estado-nación haya funcionado hasta ahora y se haya legitimado a través de sus mejoras, de sus resultados de bienestar. Pero si antes valía la legitimación a través de los *output* (Scharpf) era porque daba resultados y logros. Por ello la advertencia de Martín y Pérez de Nanclares cobraba pleno sentido, “los éxitos del pasado no garantizan los éxitos del futuro”. Y si en el futuro las bondades no son tan notables, o si una gran parte de la población no puede disfrutarlas, será muy difícil lograr su adhesión desde un punto de vista funcional. Y si no hay narrativa que nos explique porqué es tan importante nuestra unión, los pueblos volverán a bailar al ritmo de las melodías de los viejos Estados.

Si esos logros no se ven como un éxito de Europa, si no se reparten, si no se renuevan, si no se les asigna un discurso positivo, en virtud del cual hacemos todo esto para compartir el bienestar común –paz, solidaridad, libertad, tolerancia, diversidad, y no sólo mercado–, entonces, perderemos la visión y el sueño, y eso es lo que nos ha pasado en gran medida. Debemos pues retomar la *raison d'être*, los valores, algo que tan profundamente asimilaron Jean Monnet, Robert Schuman y todos los fundadores de la UE. Las intervenciones de Eneko Landaburu, ex director general de relaciones exteriores de la Comisión Europea, y del político Verhofstadt, coordinador del Parlamento Europeo para el Brexit, nos ayudaron a vislumbrar esa narrativa positiva. Nos inspiraron para buscar ese cosmopolitismo creativo (como lo teorizó en el curso Isabel Turégano) y para repensar la idea de la autodeterminación transnacional en un contexto de interdependencias (del que nos habló Daniel Innerarity). Mediante estas contribuciones nos hicimos conscientes de la importancia de la fraternidad. Así nos acercaremos a la amistad, así entenderemos que nuestra madre-tierra es verdaderamente pequeña, y que la debemos cuidar, y que Europa debe desempeñar un papel especial en ese empeño, y que, en ese intento, tendremos la oportunidad de construir una narrativa cosmopolita (Görlach). “Douglass-Scott nos mostró una perspectiva similar al abordar el tema del Brexit, pero desde una perspectiva jurídica, propuso una larga transición donde cupieran soluciones diferenciadas de colaboración según los temas (*pragmatic differentiated solutions*).”

Quizás en el curso no encontramos soluciones *técnicas* para arreglar los problemas que suscita la crisis existencial, pero el encuentro nos dio la oportunidad de formularnos nuevas preguntas, nos enseñó que el sentimiento pro-europeo no tiene por qué ser irracional, que no todo debe obedecer a un juego de intereses cínico, que tenemos a qué agarrarnos y por qué agarrarnos, y si no lo sabíamos aún, sabremos que cuando los Estados westfalianos eurófobos nos propongan volver a la envejecida figura de Estado, estaremos ante pura propaganda. Para hacer frente a esa propaganda, también necesitamos crear una nueva narrativa. He aquí un modesto ensayo para esbozar una narrativa.

## II. UNA NARRATIVA SOBRE EL OBJETIVO DE LA INTEGRACIÓN EUROPEA: ANDAMIO Y SOLAR

En Europa existen pueblos y naciones, al menos desde la era moderna. Esas *nationes* que se han ido formando desde la Edad Media, han ido tomando forma de Estado y ya para finales del siglo XIX la mayoría de naciones tenían forma de Estado, creando los Estados-nación (*Etat-nation*). Este proceso histórico fue complejo en numerosos aspectos, por ejemplo, en el Imperio Británico no se creó un verdadero Estado-nación ni siquiera un “estado” al uso continental. El imperio Otomano también tenía una configuración especial

(pluralidad jurídica Millet) y, hasta la revolución soviética, Rusia tampoco formaba un Estado-nación. Había naciones sí, pero sólo algunas tomaron forma de Estado-nación. Entre éstas, Francia, Portugal y España adoptaron esta forma bastante pronto, Polonia, Dinamarca, Suecia y Lituania también, los Países Bajos un poco más tarde, Bélgica, Alemania, Italia, más tardíamente, en el siglo XIX. Irlanda, Grecia y Estonia son relativamente nuevos, del siglo XX. Además, las naciones del este de Europa cayeron en la órbita de la Unión Soviética y ha pasado poco más de un cuarto de siglo desde su liberación, una liberación bastante expeditiva, si se piensa que han pasado bajo la protección de la Unión Europea. Esto significa que las “naciones” o pueblos europeos, en la mayoría de los casos, han vivido una vida política “convulsa”. A su vez esto significa que en la Unión Europea encontramos multitud de tipos de nación y de diversas tipologías de Estados-nación: algunos son muy complejos, otros son muy “simétricos o racionales”. En el proceso de integración europea posiblemente se toman en cuenta las naciones y los Estados-nación, pero desde un punto de vista formal, se habla de Estados. Desde la perspectiva de la Unión Europea, lo más neutral es hablar del Estado, en concreto, de los Estados-miembros. Desde este prisma, existe una igualdad formal. Al ser todos los miembros Estados, se garantiza la igualdad. Si en vez de articular la integración técnicamente sobre los Estados comenzáramos a hablar sobre la formación de las naciones, nos extenderíamos en concreciones y matizaciones, y no podríamos avanzar.

La Unión Europea no toma en cuenta los matices históricos. Pero éstos tienen gran importancia para entender el proceso de integración. Volvamos a la diversidad de formas que adoptaron las naciones europeas. Comparando con los Estados, las naciones no son sólo formales: detrás de la nación hay un pueblo, un *demos*, y por supuesto, comunidades, *gemeinschaften*, asociaciones y las personas, los ciudadanos, que las conforman. La población, la ciudadanía o el pueblo es el elemento principal. El pueblo está situado en un territorio, ambientado en el espacio y la ecología, un entorno. Y en ese espacio se producen la organización, jurisdicción, administración e institucionalización. Esos son los elementos del Estado: el territorio, el aparato administrativo. Los pueblos de Europa han ido tomando diversas formas en su recorrido histórico: Naciones, regiones, naciones-Estado, miembros de imperios plurinacionales, miembros de imperios de una sola nación... formas muy diversas. Además, los grandes Estados europeos tienen pasado colonial – Irlanda, Chipre o Malta han sido miembros de la Commonwealth y el Reino Unido todavía tiene Gibraltar, Francia aún tiene las DOM-TOM y la que antes fue una provincia francesa, Argelia, fue hasta su independencia parte del mercado común. Dinamarca tenía las Feroe (o las tiene, pero no en la Unión Europea), Finlandia fue súbdito de Suecia, antes de pasar bajo el control ruso, y aún es un Estado oficialmente bilingüe, Bélgica y los Países Bajos fueron antiguas “colonias” españolas en los siglos XVI-XVII. El denominado *lebensraum* alemán abrazó a muchos miembros actuales: Austria, Chequia, y el *hinterland* abarcó aún más: Polonia, Francia, Países Bajos, Bélgica,

Luxemburgo, Rumanía, Croacia, Eslovenia... Más allá, Portugal, España, Francia, Reino Unido, Italia, Bélgica, Países Bajos, Alemania, fueron creando colonias a lo largo del mundo, dividiéndose el mundo entre ellos y haciéndose con las materias primas. Y los pueblos que formaron parte de la aventura de la metrópolis tienen un pasado colonial, que no emerge del proceso de integración, es un aspecto marginado del proceso de integración y solo reflejado parcialmente en los Acuerdos de Lomé. La Historia es pasado, el proceso de integración y los Tratados miran al futuro.

Tras desgranar todas esas formas políticas lo que quedan son los pueblos, que cada cual definirá según su parecer, pero son los pueblos quienes se aventuran en una nueva forma, “una unión más estrecha entre los pueblos de Europa”. No es casual que los Tratados, mirando por los Estados, hablen de pueblos. Los pueblos forman Europa, conforman un caserío, y esa construcción de Europa-casa, se logrará a través del Estado, por lo menos, en un principio. Pero el fundamento y el alma de quienes se han aventurado en la integración son los pueblos. La última meta, quizás, no es esa Europa de los Estados, los Estados son una herramienta y un camino. Los Estados son un instrumento de los pueblos, pero los pueblos perdurarán y quizás los Estados sean formas transicionales. En este sentido, resulta útil la imagen del andamio: los pueblos de Europa construyen un hogar común, y para edificar la casa necesitan de un andamio, deberá utilizarse la soberanía de los Estados y de las administraciones para la integración jurídico-formal, pero cuando se edifique la casa, se podrá quitar el andamio, tendremos una Europa de los pueblos, de los ciudadanos y de los pueblos. Como se encuentra en proceso de reforma o construcción incesante, los andamios que son los Estados permanecen, pero el destino, el objetivo, es otro.

Farage, antiguo líder del UKIP, es contrario a ese *telos* u objetivo, aboga por deshacer la UE y volver al Estado-nación continental. Esto lo dijo en una cumbre en Estoril a finales de mayo (El País 2017-05-30) y Francisco Assis, eurodiputado portugués, le contestó que el de la Unión Europea es el único proceso de integración en la historia de la humanidad que no es fruto de la dominación y empeño colonial, y que, gracias a ella, no ha habido guerras entre los Estados miembros en 60 años, y que es muy democrática: quien no quiera estar puede irse.

Los Estados Unidos de América siempre han sido un país dividido y abierto, pero a lo largo de la historia una narrativa nacional ha garantizado la unión: una leyenda del éxodo, los fundadores huyendo de la represión de los Estados de la vieja Europa, yendo a una tierra salvaje, guiados por la fe y la certeza y creando la tierra soñada o la tierra prometida *promised land* (como Israel). Esta leyenda era judeo-cristiana, la providencia de Dios de la tierra soñada. Ahora Estados Unidos padece una crisis de identidad, ese mito no vale, grupos distintos tienen una leyenda nacional distinta y tienen la sensación que viven en naciones distintas. En opinión del escritor George Packer hay al menos cuatro narrativas (ponencia de New America think tank, *NYT* 2017-05-26, David

Brooks, “*The Four American Narratives*”): la primera, y la más eficaz, la libertaria (*free individuals responsible for their own fate, Americans as consumers, entrepreneurs, workers, taxpayers, anything except citizens of a republic*); la segunda, la narrativa de la América global (la que reflejan New York o Silicon Valley); la tercera, la narrativa de la América multicultural, pero este carece de referentes comunes; y la cuarta, la narrativa de *America First*, el discurso imperial del actual presidente. De conformidad con otra teoría (Michael Lind, *The New Class War*) hay dos modelos en competición: mercantilista (América como una nueva Roma) y una comunidad de talento (América como una nueva Atenas). Antes había ejemplos así: *mars* y *venus*, o *open* y *closed society*.

La clave es qué narrativa y qué categorías utilizaremos para expresar el proceso de integración europea y la iniciativa colectiva que somos Europa, nuestra casa, la casa de nuestros padres, que defenderemos (Gabriel Aresti). Debemos crear esa narrativa conjuntamente, y para ello, necesitamos la aportación de cada uno de nosotros. Si todos comenzamos a debatir y a dialogar qué Europa queremos construir, despacio y poco a poco, a ver si sin darnos cuenta hemos llegado al objetivo mismo que es Europa: ser soñada (*European Dream*).

*Traducción al castellano*  
*Johana Etxezarraga Aldamiz-Etxebarria*